

# Aberatsen zergak

**Patxi Juaristi**  
Soziologoa

**T**xiroek, langabeek edo gizarteko ahulenek estatutik dirua jaso behar dute? Zenbat zerga ordaindu behar dute aberatsek? Posible da ongizate-estatu sendo bat izatea eta, era berean, zerga gutxi ordaintzea?

Jose Blanco Espainiako Sustapen ministroak Pandoraren Kutxa zabaldu du. Izan ere, inbertsio publikoekin jarraitzeko, aberatsen zerga gehiago ordaindu behar dituztela esan du. Defizit publikoa Barne Produktu Gordinaren %10era heldu da, lan egiteko gai direnen %17,9a langabezian dago, eta estatutak gero eta gutxiago biltzen du zerga bidez. Ondorioz, badirudi Estatutak gero eta diru arazo gehiago dituela, langabezi sariak ordaintzeko eta, oro har, gizarte politikekin jarraitzeko. Gobernuak tabakoen eta gasolinaren gaineko zerga igo zuen ekai-

nean, baina, itxura denez, igorera ez da nahikoa izan estatutak dituen gastu guztiei aurre egiteko. *Aitorra-zahar eta fraka-erre, haserre ziran bart ere.* IU-k, ERC-k, BNG-k eta Nafarroa Bai-k gobernuaren balizko egitasmo hau babestu dute, eta PP eta CiU aurka agertu dira.

Baliteke Jose Blancok esan duena udako *globo zunda* bat izatea, eragile sozialen iritzia neurtzeko. Dena dela, bere adierazpenek ekonomian aspaldikoa den eztabaida azaleratu dute; hau da, John Maynard Keynes-en (1883-1946) irakatsietan oinarritutako eredu ekonomikoa nahi dutenen eta neoliberalen arteko eztabaida.

Keynesek *Enplegu, interes eta diruari buruzko teoria orokorra* (1936) liburua zioen bezala, Estatutak zergak bildu behar ditu, gero inbertsioak egiteko eta, ondorioz, enplegu betearen gaineko eredu ekonomikoa ziurtatzeko. *Zi-*

*gor gabeko legea? Mingain gabeko txilina.*

Neoliberalentzat, aldez, emaitza ekonomikoko hobeak lortzen dira merkatuari lan egiten utzita. Errenta handiak dituztenei zergak jartzen bazaizkie gero pobreei edo langabeei emateko, batzuek zein besteak aurrera egiteko pizgarriak galtzen dituzte, eta ekonomia kaltetuta gelditzen da. Lanik ez dutenek langabezi saria eskuratzen badute ezer egin gabe, gutxiago saiatuko dira lana bilatzen eta euren buruak lehiakor bihurtzeko prestatzen. *Nor beretako ez dena, inorentzako ez da.* Inbertsioegileek, ekintzaileek edo enpresa sortzaileek inbertsio gutxiago egingo dituzte, baldin eta aldeaz aurretik badakite Estatutak euren irabazien zati bat gizarte politikak egiteko kenduko dizkiela. Neoliberalen arabera, Keynesen irakatsiei jarraituz, txi-roak ugartu egiten dira, hain zuzen ere, hazkunde ekonomikoa gelditzen delako.

Keynesen irakatsiek arrakasta lortu zuten Bigarren Mundu

Gerra bukatu zenetik 1973. urtera arte. Teoria hauek jarraitzearen ondorioz, mendealdeko ekonomiak izugarri hazi ziren eta enplegu beteko egoerak lortu ziren. Keynesek gorpuztu zuen eredu ekonomikoa gai izan zen ia 30 urtean (1945etik 1973. urtera) herritarrek zituzten arazo garrantzitsuak irtenbidea emateko.

Hala eta guztiz ere, eredu ekonomikoa hain krisian sartu zen 1973. urtean. Izan ere, ezin zion erantzun egokirik eman petrolioaren garestitzeak sortzen zituen hainbat arazo garrantzitsuri: langabeziari, bazterketa sozialari eta osasunari edo hezikuntzari loturiko gastu handien ordaintzari, besteak beste.

Keynesen eredu ekonomikoa-ren krisiaren lekuko dira M. Thatcher eta R. Reagan-ek hauteskundeak irabazi izana (1979. urtean lehenengokoak eta 1980. urtean bigarrenak). Hobeto esanda, Thatcher eta Reagan boterera heltzeak gerra osteko politika Keynesiarrarekin aurtzea ekarri zuen. Hortik aurre-

ra, ongizate-estatuaren aurkako diskurtsoa indartzen eta hedatzen joan zen. Hau da, 30 urtez (1979tik 2008ra) modan egon dira merkatuari inolako araurik gabe lan egiten utzi behar zaiola diotenen ikuspuntuak.

Askoren ustez, Keynesen irakatsietara bueltatzen ari gara. Estatutak hainbat bankutan esku hartu izana edo finantza mundua arautzeko hartutako erabakiak horren lekuko dira. Nire irudiko, hori esatea gehiegizkoa da, kontuan hartzen badugu bankuen, multinazionalen handien eta, oro har, merkatuaren boterea oraindik ere izugarria dela. Liberalismoaren «esku ikusezinean» sinesten duen pertsona boteretsu gehiegia dago oraindik ere, gauzak aldatzen ari direla esateko. Beraz, iruditzen zait Blancoren proposamena ezerezean geldituko dela, eta errenta altuak dituztenekin orain arteko zerga berdina ordaintzen jarraituko dutela. Gehiago esango dut, susmoa daukat Estatutak duen defizita gizarte babesa murriztuz arinduko dutela. Dagoeneko, esan dute ume bat izateagatik ematen den 2.500 euroko diru-laguntza zalantzan dagoela, baita 400 eurokoa kenkari fiskala ere. *Txikiaren nahaste, handien irabazle.*

# Herritarren babesgabetasuna

**Jose A. Landa**  
Irakaslea

**E**skandaluzkoa da zer-nolako tratua ematen dioten herritarrei haien lehen premia oinarrikoak asebetetzeko hainbat zerbitzu publiko ematen dituzten konpainia multinazional askok. Hala nola Iberdrolak, Telefonikak eta beste hainbat konpainiak. Eskandaluzkoa da kontsumitzaileak bere burua hain babesgabe eta gutxietsia sentitzea konpainia horiekiko harreman behartuetan. Giza eskubide oinarrikoiek dagokionez, nik neuk ere harreman ezinago apalesgarria eta gutxiesgarria izan dut hiru urteotan Iberdrolarekin, eufemismo hutsez «landa alde» esaten dioten gune batean dagoen lur sail baterako argindarra eskuratu nahian ibilia bainaiz, bai eta lortu ere —nahiz eta inoiz ez didaten eman inolako agiririk edo kontratu izenpeturik—. Barrerak ematen didate «herrita-

ren eskubide» edo «kontsumitzaileen eskubide» izeneko horiek... Eta, antza, aise egiaztatze-koa denez, multinazional horiek halakoxe jokabidea du, oro har, herritar guztiekin. Ez naiz, inondik inora ere, kasu bakan bat. Babesgabetasun, gutxiespen eta apaleste halakoa ari dira jasaten nonahiko herritar-kontsumitzaileak, Iberdrola, Telefonica eta beste hainbat zerbitzu konpainia ahaltsurekin harremanak dituztelarik. Konpainiak horiek, izan ere, ezabatu egin dute kontsumitzailearekiko harreman zuzen «aurrez aurreko» oro. Ezin da, beraz, inolako erreklamaziorik jarri inongo leihatilatan, ezin da eztabaidatu, ez ñabardurarik egin, ez azalpenik eskatu, ez galderarik egin, ez salaketarik jarri... inon ez baitago jendaurreko bulegorik, zabalik, kontsumitzaileei arreta egokia eta atsegina emateko. Telefono makina bati hitz egina-razten diete... «honetarako, sakatu 2; horretarako, sakatu 3...», eta Bogotatik edo Buenos Airesetik erantzuten diete, arazo bat

argitzea edo salaketa bat jartzeko Amortotatik edo Arrankudiagatik deitu dutenei. «Bezeroaren arretarik ezerako» telefono zerbaki onartezin ugariak.

Aldez, erretiratuek, langabeek edo langile xumeek badute beste ahalbide bat, konpainia horien eskuzabaltasun doakoari eskerrak: Internet zorionekoak...

Kontua da «aurrez aurreko» jarduna ezabatzea, ez izatea herritarren arretarako bulego bat zabalik, argi eta garbi haien premia oinarrikoak asebetetzeko diren hainbat zerbitzu publiko emateko. Ezinbestean, bada, urrutiko mamu informatiko ahaltsu batekin harremanetan jarrarazten dituzte, erabat babesgabe, gutxietsita eta laidozta-tuta sentiaraztena.

Niri neuri, bidaldi sigi-sagatsa bat eginarazi zidaten balizko kontratu berri bat egin ahal izateko; martirio ezinago neketsua gertatu zen, eta azkenean ez nuen ezer lortu, ez baitzidaten ezer eman. Ibilbide horretan guztian erabat babesgabe senti-tu nintzen, herritar zein kontsu-

mitzaile moduan. «Landa gune-ko» lur sail bakoitzak bere kabuz konpondu behar izan du Iberdrolarekiko «arazoa». Ez udalak —«ez daki, ez du erantzunik» jokamoldea erabili baitzuen— ez argindar konpainiak eman dute konponbide bateratu, taldeko, gauzagarri eta onargarririk. Beraz, banan-banango konponbideak lortu dira ia, eta horrek lis-kar zentzugabeak ekarri ditu auzoen artean, argindar lineak ugalarazi ditu —estetika aldetik itsusgarriak, ingurumena eta paisaia hondatzen baitute argindar zutoinek—, eta alde izugarriak eta ez batere garbiak eragin dituzte kontratu berrietan... Eta egoera, neure kabuz egiazta-tu ahal izan dudanez, nahiko orokorra da udalerririk guztietan.

Azkenik, jendaurreko leihatila baten bila hasi nintzen, kontratu formalizatu ahal izateko, behin 4.000 eurotik gora ordainduta eta egiaztatuta Iberdrolak itxi egin dituela han-hemengo udalerrietan zeuzkan bulego jendaurrekoak. Bilbon duten gelazulo ziztrin batera bidali

ninduten, Urkixo zumarkaleko 33. zenbakira. Ikustekoa da hango bulegoa! Etxe agentzia bateko behe solairuan dago: Inicativas Orozco, SL. Kalera begirako karteltxo txiki-txiki batean, berri-z, *Iberdrola*, dio; bai.

Han, atari egokitu hartan, hiruzpalau mahai dauka Iberdrolak, ordenagailu eta guzti, kontratu berrien eta kontratu etete- en izapideak egiteko, baina ez askoz gehiagotarako, ezin baita kexarik agertu, ez salaketarik egin, ez azalpenik eskatu...

Neuk izenpeturiko kontratuaren egiaztagiria edo kopia eskatu, eta ezin zidatela ezer eman esan zidaten. Erreklamazioen liburua eskatu, eta hartzaile gisa Eusko Jaurlaritzara ageri zuten orri zerbakitu batzuk eman zizkidaten. Iberdrolakoek ez zuten ezer izenpetu, zigilu bat baino ez zuten jarri, honako hau zioena: «Inicativas Orozco, SL. Establezimendu laguntzaileak». Berritoren liburua eskatu, eta beste erreklamazio orri bat eman zidaten, eta hartan adierazi nuen, han azaldutakoak bestera, erreklamazioa jarri nion hark ez zuela erreklamazio orria izenpetu nahi izan. Nire atzetik, bulegoa bete erretiratu, immigrante... oihuka ari ziren, protestan, ordu-bete pasa zeudelako esperotan. Horrelakoa al da datorkigun etorkizuna?

(Erredakzioan itzulia)